


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Urtarrilean, aurreko urteetan gertatu den bezala, Lanbiden erregistratutako Donostiako langabeen kopuruak gora egin du Gabonetako Kanpainaren amaierarekin bat eginez. **2025eko urtarrilean 6.780 langabe zenbatu dira Donostian (3016 gizon eta 3.764 emakume), 2024ko abenduan baino 301 pertsona gehiago.**

- Langabezia **% 4,6 egin du gora 2024ko abenduaren aldean.**
- Langabezia **- % 4 egin du behera 2024ko urtarrilaren aldean.**

Urtarrilean emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak gora egin duen arren, hazkunde hori zertxobait nabarmenagoa da gizonen kasuan (+ % 4,9; + % 4,4 emakumeen kasuan).

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, urtarrilean berrir jaitsi da langabeen kopurua, -%4. 2024ko urtarrilarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin badu ere, gizonetzkoen langabeziak emakumezkoena baino pixka bat gehiago egin du behera (% -4,1 gizonetan eta % -3,9 emakumeetan).

Langabezia tasa EUSTATen arabera (2024 4. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,2 abenduan), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2024ko hirugarren hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena izan duten lurralde historikoak eta hiriburuak.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko lauagarren hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,4	6,1	5,7
Donostia	5,8	6,7	6,2
Bizkaia	7,2	8,7	7,9
Bilbo	8,7	9,2	8,9
Araba	6,3	7,7	7,0
Gasteiz	6,6	7,7	7,2
EAE	6,5	7,7	7,1

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa.

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,4	7,9	9,8
Gizonen langabezia indizea	6,8	6,7	8,2
Emakumeen langabezia indizea	8,0	9,2	11,3
Genero arrakala	1,20	2,45	3,09

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea ehuneko 0,2 puntu igo da, % 7,4ko balioan kokatzeraino: % 6,7 gizonen artean eta % 8 emakumeen artean (ehuneko 1,2 puntuko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	7,9	-1,8
Donostia	7,4	-2,4
Bizkaia	10,6	0,9
Bilbo	12,4	2,6
Araba	10,8	1,0
Gasteiz	11,1	1,3

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburuak.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.780	%100	%4,6
Gizonezkoak	3.016	%44	%4,1
Emakumezkoak	3.764	%56	%3,9
Gipuzkoa	28961	%1,9	-%2,0
EAE	109.361	%1,8	-%1,7

2024ko abenduaren aldean, Donostian bezala, langabeen kopuruak gora egin du Gipuzkoan eta EAEn ere, Donostian baino erritmo apalagoan (+ % 1,9 eta +% 1,8).

2024ko urtarrilarekin alderatuta, Gipuzkoako eta EAEko langabeen kopuruak behera egin du (-%2 eta -%1,7). Hala ere, urte arteko langabeziaren jaitziera nabarmenagoa izan da Donostiaren kasuan (-%4).


JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2024ko lauagarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,7	53,8	57,1
Donostia	60,3	54,7	57,3
Bizkaia	59,5	51,3	55,2
Bilbo	60,4	50,6	55,2
Araba	62,2	53,1	57,5
Gasteiz	61,3	53,0	57,0
EAE	60,3	52,2	56,2

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2024ko lauagarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,4	50,5	53,8
Donostia	56,8	51,1	53,7
Bizkaia	55,3	46,8	50,8
Bilbo	55,1	46,0	50,3
Araba	58,3	49,0	53,5
Gasteiz	57,2	48,9	52,9
EAE	56,4	48,3	52,2

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, 2024ko urtarrilean:

- 55 urtetik gorako 2.329 langabe erregistratu dira Lanbiden (+28 abenduaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.552 langabe erregistratu dira Lanbiden (+76 abenduaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.237 langabe erregistratu dira Lanbiden (+71 abenduaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.181 langabetu erregistratu dira Lanbiden +59 abenduaren aldean).
- 25 urtetik beherako 481 langabe erregistratu dira Lanbiden (+67 abenduaren aldean).

Langabeen kopuruak gora egin du adin-tarte guztietan.

Egia da 55 urtetik gorakoek jarraitzen dutela izaten langabezian pisu handiena duen kolektiboa, baina nabarmentzekoa da kolektibo horiek ere garrantzi handiagoa dutela biztanleria-mailan.

LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	%54,5	%45,5	-8,9
25 eta 34 urte bitartekoak	%48,3	%51,7	3,5
35 eta 44 urte bitartekoak	%40,3	%59,7	19,3
45 eta 54 urte bitartekoak	%44,8	%55,2	10,3
55 urtetik gorakoak	%42,5	%57,5	15,1

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonak beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datuek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.


Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumeei eta 55 urtetik gorako emakumeei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita. Zehazki, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 19,3 puntukoa da.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonek baino ikasketa maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) nabarmen gainditzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorakoan adin-tarteetan) gizonak baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeek enplegua lortzea zailtzen duten oztopo eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeek sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ia ehuneko 17 puntu handiagoa da.

Langabeen hezkuntza maila



Langabeen % 46,6ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 18,3k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino.

Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonen baino kualifikazio handiagoa dutela.**


PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%57,2	%54,2	%54,8
35 urtetik beherakoak	%24,5	%26,0	%25,2
Iraupen luzeko langabezia	%42,2	%43,9	%48,2
Atzeritarrak	%15,5	%20,8	%19,0
EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak	%19,2	%16,6	%15,3
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%18,3	%11,8	%11,7
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%43,6	%52,3	%54,7

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- **Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.**
- **Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.**
- **Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 19,2), Gipuzkoakoan erregistratutakoa (% 16,6) eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa da (% 15,3).**

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailiek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Urtarrilean, emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak gora egin duen hilabetean, **emakumezkoen kontratazioa gizonezkoena baino handiagoa izan da beste behin.**

Hala ere, urtarrilean, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdiak lanaldi partzialekoak dira** (% 51), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 34 baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, kontratatutako pertsona guztietatik, % 9 emakume atzeritarrak ziren, abenduan baino ehuneko 3 puntu gutxiago gutxi gorabehera (atzeritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,2 dira).

Urtarrilean 7.580 kontratu sinatu dira, hau da, abenduan baino % 5,6 gehiago (403 kontratu gehiago, aurreko urteko urtarrilean baino 86 gutxiago).

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.190	%42,1	4.390	%57,9	7.580
Aldi baterakoak	2.433	%40,7	3.552	%59,3	5.985
Mugagabeak	757	%47,5	838	%52,5	1.595
Lanaldi partziala	1.087	%32,5	2.254	%67,5	3.341
Lanaldi osoa	2.103	%49,6	2.136	%50,4	4.239

Kontratu horiekin 5.479 pertsona kontratatu dira, hau da, abenduan baino % 6,3 gehiago (323 pertsona gehiago). 2024ko urtarillaren aldean, 102 pertsona gehiago kontratatu dira.


Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu urtarrilean.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratutako pertsonak guztira	2.364	%43,1	3.115	%56,9	5.479
Sinatutako kontratuen ratioa	1,3		1,4		1,4
24 urtetik beherakoak	626	%44,2	791	%55,8	1.417
25 eta 34 urte bitartekoak	689	%45,4	827	%54,6	1.516
35 eta 44 urte bitartekoak	429	%43,0	569	%57,0	998
45 eta 54 urte bitartekoak	422	%41,1	606	%58,9	1.028
54 urtetik gorakoak	198	%38,1	322	%61,9	520
Atzeritarrak	450	%45,2	545	%54,8	995

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino. Batez ere 55 urtetik gorakoan adin-tartean (tarte horretan kontratatutako pertsonen % 62 emakumeak ziren).
- Sinatutako kontratuen % 21 mugagabeak ziren (abenduan baino ehuneko 2 puntu gehiago).
- Sinatutako kontratuen % 44 lanaldi murritzukoak dira (% 42,1 azaroan eta % 46 abenduan). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 67).
- Kontratuen % 54 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
- Kontratuen % 28 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte. Horietatik % 60 emakumeak dira (%66 abenduan).
- Kontratutako pertsonen % 18 atzeritarrak ziren. Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 55 emakumeak ziren (% 61 abenduan).

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua mantentzen du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 14,9** sinatu ditu (%15,1 abenduan).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 23,6** sinatzen ditu (% 29,3 abenduan).
- Beste behin, **sektore horretan sinatu da kontratu bolumen handiena**, 377 kontratu mugagabe (402 abenduan).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 33 mugagabeak dira** (%37 abenduan)
- Kontratazioaren **partzialtasuna jaitsi egin da ostalaritza sektorean**. Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 57 lanaldi partzialekoak dira (% 64 abenduan).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 12,2 sinatu ditu** (% 11,3 azaroan eta % 14,5 abenduan).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 15,3** (% 15,4 azaroan eta % 17,4 abenduan) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 18,6** sinatu ditu (% 17,8 azaroan eta % 20,4 abenduan).
- Merkataritzan sinatutako kontratuen % 26 mugagabeak dira** (% 26 azaroan eta % 23 abenduan).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 67 lanaldi partzialekoak dira** (% 66 azaroan eta % 64 abenduan).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (%0,1)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	87 (%5,5)	%93,1	%6,9
Industria	47 (%2,9)	%55,3	%44,7
ostalaritza	377 (%23,6)	%58,6	%41,4
Merkataritza	244 (%15,3)	%43,4	%56,6

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	83 (%5,2)	%32,5	%67,5
Osasuna eta gizarte zerb.	157 (%9,8)	%25,5	%74,5

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	335 (%21,0)	%37,6	%62,4
----------------------	-------------	-------	-------

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (%0,0)	-	-
Eraikuntza	11 (%0,3)	%72,7	%27,3
Industria	47 (%1,4)	%59,6	%40,4
ostalaritza	642 (%19,2)	%39,1	%60,9
Merkataritza	620 (%18,6)	%32,9	%67,1

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	265 (%7,9)	%23,0	%77,0
Osasuna eta gizarte zerb.	742 (%22,2)	%17,4	%82,6

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	831 (%24,9)	%39,1	%60,9
----------------------	-------------	-------	-------

Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Industria, hezkuntza, Zerbitzu operatiboak eta osasun / gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 84, % 84, % 83 eta % 90 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan eta hezkuntzan. Gainera, osasun sektorean, non kontratuen % 46 lanaldi partzialekoa den, mota honetako kontratuen % 83 emakumei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau).


Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak (% 0) industriak (% 28) eta eraikuntzak (% 6) eskainitako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 76 eta osasun-sektoreko kontratuen % 77 emakumeen kolektiboarentzat dira.

¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduera intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (371 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (30 kontr.), higiezin-jarduerak (12 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.281 kontr.), administrazioa publikoa (34 kontr.), beste zerbitzu batzuk (96 kontr.) eta etxeetako jarduerak (138 kontr.).

DSBEaren hartzaileak

Urtarrilean zehar **3.472 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (abenduan baino 5 pertsona gehiago).



Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 60 emakumeak dira**.
- **55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 48,4 dira**
- DSBEa jasotzen dutenen % 22,4k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 29,1k goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAEREkin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,2	%0,8	%0,4
20 - 24 urte	%2,4	%2,6	%2,6
25 - 29 urte	%4,8	%5,3	%5,2
30 - 34 urte	%6,7	%7,7	%7,4
35 - 39 urte	%8,1	%9,7	%9,4
40 - 44 urte	%9,0	%10,7	%10,6
45 - 49 urte	%10,0	%11,5	%10,8
50 - 54 urte	%10,4	%11,2	%10,8
55 urtetik gora	%48,4	%40,6	%42,8
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,3	%61,2	%58,7
Batxilergoa	%8,8	%6,8	%6,8
Lanbide Heziketa	%21,7	%17,9	%20,3
Unibertsitatea	%7,4	%4,6	%4,9
Informaziorik gabe	%8,9	%9,5	%9,3
Lanaren osagarritasuna	%22,4	%21,4	%22,2
Oinarrizko DSBE modalitatea	%77,6	%78,6	%77,8
Gizonak	%42,1	%42,1	%42,1
Emakumeak	%59,3	%57,9	%57,9

DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzekide guztiekiko %
Aiete	14.066	140	1,0%
Altza	19.517	548	2,8%
Amara Berri	29.377	412	1,4%
Antiguo	13.754	132	1,0%
Añorga	2.448	29	1,2%
Ategorrieta-Ulia	3.874	71	1,8%
Centro	21.352	339	1,6%
Egia	14.208	326	2,3%
Gros	17.563	256	1,5%
Ibaeta	9.721	121	1,2%
Igeldo	1.040	6	0,6%
Intxaurrondo	15.010	526	3,5%
Loiola	6.073	177	2,9%
Martutene	2.592	77	3,0%
Miracruz-Bidebieta	8.565	286	3,3%
Miramón-Zorroaga	2.302	26	1,1%
Zubieta	-	-	-